

## **CARITASEN KANPAINA**

2012.eko EKAINAREN 10a

KARIDADE EGUNA

### **KRISTOREN GORPUTZ ETA ODOL GUZTIZ SANTUA (B)**

**«EMATEAN DAGO  
IRABAZIA.  
Parte hartu ezazu!»**

*Liturgi lagungarriak*

#### **Atarikoak:**

- ✿ Gogoratu ezinbestekoa dala lagungarriok alkarte baktxerako egokitzea. Horretarako, Caritasetik bialtzen diran lagungarriak irakurtea komeni da.
- ✿ Egokia da kartelak sasoz ipintea eta aurreko domekan Jardunaldiaren barri emotea. Lehen Eguen Santuan ospatzen zan Senide Maitasunaren Egunaren sena jasoten dauan Karidade Eguna dogu hau.
- ✿ Ondo legoke parrokiako Caritaseko boluntarioek gaurko ospakizunetan partaidetza nabarmena izatea.
- ✿ Jardunaldi eta diru batzeetarako emondako biderapenak kontuan hartuta, sarrerako oharrean, jainko herriaren otoitzean eta diru batzearen aurreko oharrean egingo da gaurkoaren aitamena.
- ✿ Egun egokia da gaurkoa, eukaristia liturgia aparteko eran zaintzeko: oparien aurkezpena (altararen behelaldean itziko dogun dirua barru –dirua batu aurretik ez litzateke egokiago izango oharra irakurtea?-), Eukaristia otoitzaren aurreko alkarriketea abestuta, eukaristia otoitza, erantzunak abestuz, ogiaren zatitzea, era esanguratsuan eginez (forma handia bat baino gehiago zatituz) “Jaungoikoaren Bildotsa” abesten dan bitartean, jaunartzea...
- ✿ Homiliaren oinarria, ohikoa danez, hots egindako Jaungoikoaren Berbea izango da. Karidade Egunaren bidezko aitamena egiteko, irakurri eizuez Caritasetik bialdutako lagungarriak.

#### **SARRERAKO OHARRA**

Anai-arrebok: gaur Kristoren Gorputz eta Odolaren Eguna ospatuko dogu.

Guri bizia emoteko hil eta berbiztu zan Jesus Jauna gure artean azaltzen da atxilotu

## **CAMPAÑA DE CÁRITAS**

10 de JUNIO de 2012

DÍA DE LA CARIDAD

### **EL SANTÍSIMO CUERPO Y SANGRE DE CRISTO (B)**

**«DA LO MEJOR DE TI.  
El voluntariado es  
gratuidad»**

*Subsidios litúrgicos*

#### **Notas previas:**

- ✿ No olvidéis pasar estos subsidios por las manos del equipo animador de la liturgia. Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten a las circunstancias de cada comunidad. Para ello es muy conveniente leer los materiales que se envían desde Cáritas.
- ✿ Es muy oportuno poner los carteles con tiempo y avisar de la Jornada el domingo anterior. Este es el Día de la Caridad que recoge también el sentido del Día del Amor Fraternal que antes se celebraba el Jueves Santo.
- ✿ Estaría bien que el voluntariado de Cáritas de la parroquia participe activamente en las celebraciones de hoy.
- ✿ Respetando las orientaciones dadas para la celebración de las Jornadas y colectas, hacemos mención de la de hoy en la monición inicial, en la oración de los fieles y en la monición que motiva la colecta.
- ✿ Hoy es un día apropiado para cuidar especialmente la liturgia eucarística: la presentación de los dones (incluida la colecta, que se deja a los pies del altar (¿convendría no empezar a hacerla hasta que se haya leído pausadamente la monición que la motiva?), el canto del diálogo previo al prefacio de la Eucaristía, la plegaria eucarística con las aclamaciones cantadas, la fracción del pan hecha significativamente (partiendo varias formas grandes) mientras se canta “Cordero de Dios”, la comunión...
- ✿ La homilía se basará, como de ordinario, en la palabra de Dios proclamada. Para la oportuna aplicación y referencia al Día de Caridad sugerimos la lectura de los materiales que se han enviado desde Cáritas.

#### **MONICIÓN INICIAL**

Hermanas y hermanos: Celebramos hoy la solemnidad del Cuerpo y Sangre de Cristo.

Jesús, el Señor, muerto y resucitado para darnos vida, se hace presente en medio de





ebeneko gauean itzi euskun zeinu hau errepikatzeko batzen garan bitartean. Eukaristian, bere Gorputz eta Odolaz, janari lez emoten jaku, berari lotuta bizi gaitazan beti eta berak maite izan gaituan lez maitatzen ikasi daigun.

Gaur Karidade Eguna da. “Zintzo jokatu” dinosku Caritasen goiburuak. Doakotasuna da boluntarioen ezaugarria. Geu be lankide izan gaitkez gizarte barriaren eraikuntzan; bertan, lagun bakotxak Jaungoikoaren ametsa gauzatu ahal izango dau, bere gizatasunaz gozatuz eta besteakazko alkartasun eta batasunezko hartu-emona ezarriz. Gizartean persona izango bagara, humanismo barrian oinarritutako garapen eredu barria garatu beharko dogu.

Gorpuzti eguneko ospakizuna, mahaiaren, guztiontzako erdibanatutako ogiaren, alkarbanatzearen eta nork bere bizia besteen alde emotearen jaia da. Ospatu daigun Eukaristia, ospatu daigun Kristoren maitasunik, eskuzabaltasunik eta eskaintzarik handiena.

### **ABADEAREN AGURRA**

Jauna, zerutik jatsi dan ogi bizia, egon bedi zuekin.

### **DAMU OTOITZA**

Batasunaren sakramentua ospatzen dogu, baina, askotan, jarrera indibidualista eta baztertzailak daukaguz. Bihozbarritzearen grazia behar dogu. (*Isilunea*)

— Behin betiko ondasunen abade nagusia: Erruki, Jauna.

— Itun barriaren bitartekoa: Kristo, erruki.

— Betiko bizirako janaria: Erruki, Jauna.

### **OHARRA LEHENENGO IRAKURGAIARI (Ur 24, 3-8)**

Jaungoikoak begi onez onartzen ditu bihotzez eskainitako sakrifizioak, baina ez dau bere gurtzaileen heriotzarik gura. Jaungoikoak bizia itzultzen deutse eskaintzen deutesnei. Entzun daigun Jaungoikoaren eta Israel herriaren arteko ituna adierazoten eban eta guk bizi doguna aurreratzen dauan errituala.

nosotros cada vez que nos reunimos para repetir aquel gesto que él nos dejó la noche antes de su entrega. Con su Cuerpo y su Sangre, en la Eucaristía, se nos da como alimento para que vivamos siempre unidos a él y aprendamos a amar como él nos ha amado.

Por eso hoy es también Día de la Caridad. “Da lo mejor de ti” nos dice el lema de Cáritas. El voluntariado es gratuidad. Nosotros también tenemos la oportunidad de contribuir en la construcción de una sociedad en la que cada persona pueda realizar el sueño de Dios gozando de la propia humanidad y estableciendo una relación de solidaridad y comunión con los demás. Ser personas en sociedad nos plantea la necesidad de construir otro modelo de desarrollo basado en un nuevo humanismo

La celebración del Corpus es la fiesta de la mesa, del pan partido para todos, es la fiesta del compartir y de la entrega hasta de la propia vida. Celebremos la Eucaristía, celebremos el mayor amor, la mayor generosidad y la mayor entrega de Cristo.

### **SALUDO DEL PRESIDENTE**

El Señor, pan vivo que ha bajado del cielo, esté con todos vosotros.

### **ACTO PENITENCIAL**

Celebramos el sacramento de la unidad, pero nos dejamos llevar muchas veces por actitudes individualistas y excluyentes. Necesitamos la gracia de la conversión. (*Silencio*)

— Tú, sumo sacerdote de los bienes definitivos: Señor, ten piedad.

— Tú, mediador de una alianza nueva: Cristo, ten piedad.

— Tú, alimento de vida eterna: Señor, ten piedad.

### **MONICIÓN A LA PRIMERA LECTURA (Ex 24, 3-8)**

Dios acoge favorablemente los sacrificios ofrecidos con un corazón sincero, pero no quiere la muerte de sus adoradores. Dios devuelve la vida a quienes se la ofrecen. Escuchemos el ritual que quería significar la alianza de Dios con el pueblo de Israel y que anticipa lo que nosotros vivimos.

## **OHARRA BIGARREN IRAKURGAIAI (Hb 9, 11-15)**

Kristok itun barria eta betierekoa egin dau eta ez da beharrezkoa izango barritzea. Bere burua eskaini dau eta barruko garbitasuna jadetsi dau danontzat.

## **OHARRA EBANJELIOARI –ALELUIAREN AURRETIK- (Mk 14, 12-16. 22-26)**

Eukaristia kurutzeko sakrifizioaren errepi- kapena da, askapenaren kristinau jaia, Jesukristo Jaunagan burutu dan Jaungoikoaren eta gure arteko Itunaren jaia.

## **JAINKO HERRIAREN OTOITZA**

Egin deiogun otoitz bere neurribako maitasuna Jesukristogan adierazo deuskun Jaungoiko Aita errukitsuari.

- Elizearen alde eta eliztar guztion alde, gauza guztien gaintetik Jaungoikoaren Erreinua eta bere zuzentasuna bilatu daiguzan eta garan eta daukagun onena emon daigun. Eskatu deiogun Jaunari.
- Aurton lehenengo aldiz Eukaristian parte hartu daben neskato eta mutikoen alde. Eskatu deiogun Jaunari.
- Langabezian dagozanen alde eta krisi ekonomikoaren ondorenak jasaten dabezaren alde; Karidade egun honek laguntasuna eta itxaropena emon deiela gure eskuzabaltasunari esker. Eskatu deiogun Jaunari.
- Caritasen eta bertako boluntarioen alde, behin eta barrero dei egin deiguen soiltasunez bizitzeko beste batzuk, beste barik, bizi daitezcan. Eskatu deiogun Jaunari.
- Gure parroki alkartearen alde; Eukaristiaz barrituta, eskaintza, alkartasun eta testigantzan hazi daiten. Eskatu deiogun Jaunari.

Jaungoiko Aita ona; entzun gure otoitza eta lagundu hemen ospatzen doguna egunez egun bizitzen eta jasoten dogunaren arabera jokatzan.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

## **MONICIÓN A LA SEGUNDA LECTURA (Hb 9, 11-15)**

Cristo ha sellado una alianza nueva y eterna que no será necesario renovar. Él se ha ofrecido a sí mismo y ha obtenido para todos la purificación interior.

## **MONICIÓN AL EVANGELIO –ANTES DEL ALELUYA- (Mc 14, 12-16.22-26)**

La Eucaristía es la repetición del sacrificio de la cruz, la fiesta cristiana de la liberación, la fiesta de la Alianza entre Dios y nosotros, que ha alcanzado ya su consumación en Jesucristo el Señor.

## **ORACIÓN UNIVERSAL**

Oremos a Dios, Padre rico en misericordia, que nos ha manifestado su inmenso amor en Jesucristo.

- Por la Iglesia y por quienes la formamos, para que busquemos ante todo el Reino de Dios y su justicia y demos lo mejor que somos y tenemos. Roguemos al Señor.
- Por las niñas y niños que este año han participado por primera vez en la Eucaristía. Roguemos al Señor.
- Por quienes están en paro y por las personas que sufren las consecuencias de la crisis económica para que este Día de la Caridad les lleve ayuda y esperanza de un futuro también para ellos gracias a nuestra generosidad. Roguemos al Señor.
- Por Cáritas y su voluntariado, para que no dejen de invitarnos a vivir sencillamente para que otros, sencillamente, puedan vivir. Roguemos al Señor.
- Por nuestra comunidad (parroquial), para que renovada con la Eucaristía, crezca en entrega, en solidaridad y en testimonio. Roguemos al Señor.

Dios, Padre bueno, escucha nuestra oración y ayúdanos a vivir cada día lo que aquí celebramos y a ser consecuentes con lo que recibimos.

Por Jesucristo, nuestro Señor.





## DIRUA BATU AURRETIK IRAKURTEKO OHARRA

Caritasi laguntzea, zuzentasunaren alde jardutea da. Babestu daiguzan Caritasen ekimen desbardinak. Boluntario izan gaitekez eta, holan, doakotasunez jokatu mundu zuzen eta bardinagoa eraikitzeko. Eskerrik asko orain emongo dozuen diruagaitik.

## JAUNARTZE OSTEKO ISILUNERAKO

Kristinau boluntarioak:

- Kristok laguntzeko egiten deutsan deia entzuten dau.
- Bere nahia ez da nabarmentzea eta distiratzea, zerbitzatzea baino.
- Elizagazko batasunean eta lankidetzan senaz gartzen dau bere egitekoa.
- Poztasunez bizi dau bere eginkizuna.
- Egiten dauan guztian maitasun zehatz eta eroapentsua jarten saiatzen da.
- Ez da bere fedez lotsatzen besteen aurrean.
- Jaungoikoagan konfiantza jarten dau bere ahulezia eta nekeak gainditzeko.
- Bere bizia suspertzen dauan fedea agertzera emoten dau.
- Zailtasunak jasateko prest dago, atzera egin barik.
- Badaki Jaungoikoak zaintzen dauana.

Aita, zure eskuak, begiak, bihotza izan gura dot. Besteari Zeuk begiratzen deustazun lez begiratu gura deutsat: maitasun eta samurtasunez betetako begiradaz.

Begiratu eidazu zeuk be Zeuk maitatzen, deitzen eta bialtzen nozun osotasun horretatik.

Jasotako doaren esperientziatik eta besteen aldeko, batez be pobreenen aldeko, eguneroko dohaintza apalaren doakotasunagaz egin gura dot.

Bialdu naizu, Jauna, eta emoidazu iraunkortasuna, zabalkundea eta hurkotasuna.

Irakatsi eidazu lagun egiten deutsadan eta deustanaren oinetan ibiltzen.

Lagundu eidazu ogia ugaltzen eta zauriak sendatzen, etenbarik irribarre egiten eta itxaropena alkarbanatzen.

Eskerrik asko nire bizitzan itzi dozuzan Samurtasun eta errukizko arrastoengaitik.

Amen.

## MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO PARA CÁRITAS

Colaborar con Cáritas es trabajar por la justicia. Respaldemos las diversas iniciativas de Cáritas. Podemos formar parte activa de su voluntariado, donde la gratuidad es uno de sus valores primordiales para construir un mundo más justo e igualitario. Gracias por vuestra aportación ahora en la colecta que hacemos.

## PARA EL SILENCIO DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

El voluntariado cristiano:

- Se siente llamado por Cristo a colaborar.
- No busca sobresalir y brillar, sino servir.
- Realiza su tarea en unidad con la Iglesia y con espíritu de colaboración.
- Vive su tarea con alegría.
- Intenta poner un amor concreto y paciente en todo lo que hace.
- No se avergüenza de su fe ante los demás.
- Pone su confianza en dios en medio de sus debilidades y cansancios.
- Testimonia y transmite la fe que mueve su vida.
- Está dispuesto a soportar las dificultades sin echarse atrás.
- Sabe que Dios cuida de él.

Quiero ser, Padre, tus manos, tus ojos, tu corazón. Mirar al otro como Tú le miras: con una mirada rebotante de amor y de ternura.

Mirarme a mí, también, desde esa plenitud con que Tú me amas, me llamas y me envías.

Lo quiero hacer desde la experiencia del don recibido y con la gratuidad de la donación sencilla y cotidiana al servicio de todos, en especial de los más pobres.

Envíame, Señor, y dame constancia, apertura y cercanía.

Enséñame a caminar en los pies del que acompañó y me acompaña.

Ayúdame a multiplicar el pan y curar las heridas, a no dejar de sonreír y de compartir la esperanza.

Gracias por las huellas de ternura y compasión que has dejado en mi vida.

Amén.

